

KOFESIOA

Jokolaria : APEZA
PANPI

(Apeza jarririk dago. Panpi belaukatzen da. Biek gurutzearen seinalea egiten dute : "Aitarene eta Semearne eta Izpiritu Sainduaren izenean, halabiz".)

Panpi : - Benedika nezazu, ene Aita, zeren egin baitut bekatu.

Apeza : - Errazu "Kofesatzen nitzazio"

Panpi : - "Kofesatzen nitzazio Jainko guziz boteretsuari, Maria beti Birjina dohatsuari, Jondoni Mikael Arkanjeluari, Jondoni Joanes Batistari, Jondoni Petri eta Paulo Apostoluer, Saindu guzietan, ene Aita, zeren egin baitut sobera bekatu, gogoz, hitzez eta obraz ; ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz..."

Apeza : - Zenbat denbora du ez zarela kofesatu ?

Panpi : - Urte bat, xuxen xuxena.

Apeza : - Eta... zer urte mota iragan duzu ?

Panpi : - Uste dut, Aita, ez dudala hain gaizki pasatu...

Apeza : - Lehenbiziko manamenduan...

Panpi : - Otoitzak egin ditut, egun guzietan, artoski !

Apeza : - Bigarreanean ?

Panpi : - Ez dut beti Jainkoaren izena ongi erabili. Lehen manamenduan, bekatuak ez, bestean bai, kitto !

Apeza : - Hirugarreanean ?

Panpi : - Mezarik ez dut huts egin...

Apeza : - Laugarreanean ?

Panpi : - Aitamak desobeditu ditut. Bestalde, aitari, asto haundi bat zela erran diot ! Hirugarren manamenduan, bekatuak ez, laugarreanean bai, kitto !

Apeza : - Bosgarreanean ?

Panpi : - Malezia izigarri bat atxiki dut auzokoen kontra...

Apeza : - Eta... seigarren-no hortan, baduguia zerbait aitortzeko ?

Panpi : - Ez, Ez. Zorigaitzez. ez gogoz, ez hitzez, ez obraz.
Niet. Seigarrenean, ez dut deus erraitekorik. Beraz,
bosgarrenean bekatua bai, seigarrenean ez, kitto !

Apeza : - Zazpigarrenean ?

Panpi : - Ez dut deus ebatsi.

Apeza : - Zortzigarrenean ?

Panpi : - Gezurrak erran ditut. Dotzenan hamahiru !
Zazpigarrenean beraz, bekatuik ez, zortzigarrenean
bai, kitto !

Apeza : - Bederatzigarrenean ?

Panpi : - Lohikeriazko gogorik ez dut ukan.

Apeza : - Hamargarrenean ?

Panpi : - Bestenetik hartzeko gogoa...ah, hori bai ! Eta ez
guti ! Azken bi manamenduetan beraz batean bekatuik
ez, bestean bai, kitto ! Horra ene kondu garbia !
Orain zuk ikus Aita absoluzienarik emanen
dautazunez...

Apeza : - Azken aldian ukan zinuena ?

Panpi : - Bai.

Apeza : - Azken aldian bai, aldi hontan ez, kitto !

(Panpi zutitzen da, koleraan...)

Panpi : - Zer den haatik...Apezak azken hitza beti bere !...